



HAL
open science

Frantzia metropolitarreko hizkuntza gutxituen egoera gaur egun

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. Frantzia metropolitarreko hizkuntza gutxituen egoera gaur egun. Bat Soziolinguistika aldizkaria , Bat Soziolinguistika aldizkaria - Andoain (Spain), 2021, Europako hizkuntza-aniztasunaz, pp.79-99. artxibo-03602604

HAL Id: artxibo-03602604

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-03602604>

Submitted on 16 Mar 2022

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

5

Frantzia metropolitarrako hizkuntza gutxituen egoera gaur egun

Jean-Baptiste *Battittu* Coyos

Euskaltzaindia

jean-baptiste.coyos@orange.fr

Sarrera-data: 2021-09-20 / Onartze-data: 2021-10-31

Laburpena. Artikulu honetan Frantzia metropolitarran bizi diren eskualdeetako hizkuntzak laburki azalduko dira. Kasik hogeita bat dira. Gaur egungo aniztasun horren argazki txikia ematen da: hizkuntzen egoera, azken urte hauetako bilakaera eta eramaten diren hizkuntza politikak. Halere, azpimarratu behar da datuak, argibideak edo inkestak urriak direla oro har, eta homogeneousak ez direla. Halaber, lurralde ezberdin horietan botere publikoen eta gizartearen engeiamendua era askotakoa da. Aldiz, legegintza-kuadroa berdina da eta ez aldekoa, frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra. Hizkuntza horiek denak arriskuan dira, baina ez hein berean. • *Hitz gakoak:* Frantzia metropolitarra, eskualdeetako hizkuntzak, arriskuan, egoera, bilakaera.

Abstract. this article briefly lists the living languages of regions within metropolitan France. There are nearly twenty of them. This is a snapshot of this language diversity: the position of the languages, their development in recent years and the language policies in place. However, it should be emphasised that figures, indications or surveys are in general scarce and uneven. The commitment of the authorities and society in these different regions also varies. The legal framework, on the other hand, is equally unfavourable everywhere: French is the only official language. All these languages are at risk, but to varying extents. • *Key words:* metropolitan France, regional languages, at risk, position, development.

1. SARRERA

I

1.1. Eskualdeetako hizkuntzak: *les langues régionales*

Artikulu honetan Frantzian orain bizi diren hizkuntzak aipatuko ditugu, baina ez denak, bakarrik Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak holaxe definitzen dituenak:

Estatu bateko lurraldean bertako biztanleek, Estatuko biztanleriaren barruan gutxiengo izanik, tradizioz hitz egiten dituztenak; [...] eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen barruan ez dira sartuko estatuko hizkuntza ofizialaren dialektoak, ez etorkinen hizkuntzak. (Europako Kontseilua, 1992)

Beraz frantsesa bera ez dugu aztertuko hemen eta ez ere etorkinen hizkuntzak. Gure aipagaia Frantzian usuenik *les langues régionales*¹ deitu diren hizkuntzak, euskaraz eskualdeetako hizkuntzak, izanen da.

1.2. Eskualdeetako hizkuntzak Frantzia metropolitarran: kopurua

Frantzian eskualdeetako hizkuntzak asko dira, europar lurraldean berean, Frantzia metropolitarran, guti baldin badira ere. Hain zuzen, kolonizazioaren ondorioz, Frantziar Estatuak kontinente denetan lurralde kopuru handia kudeatzen du oraino, Europatik kanpo deitu diren itsaso- gaitatik departamenduak eta lurraldeak. 1999an, izenpetu ondoan Frantziak Europako Gutuna berretsi behar zuenean (azkenean ez zuen berretsi), Bernard Cerquiglini irakasleak *Les langues de France* txostenean 75 hizkuntzak zerrendatu zituen (eta frantses zeinu-hizkuntza)².

Bat aldizkariaren zenbaki honek Europako hizkuntzak aztergai baititu, Frantzia metropolitarrako eskualdeetako hizkuntzak bakarrik aurkeztuko ditugu. Hauek dira: alsaziera (*alsacien*), bretoiera (*breton*), euskara (*basque*), flandriera (*flamand*), frankoproventzera (*franco-provençal*), frantzikera³ (*francique*), katalana (*catalan*), korsikera (*corse*), 8 oil hizkuntza (*langues d'oïl*, mapan *français* / frantsesaren eremuan daude) eta okzitaniera (*occitan*).

Frantzian eskualdeetako hizkuntzak asko dira, europar lurraldean berean, Frantzia metropolitarran, guti baldin badira ere; azken eremu horretan alsaziera, bretoiera, euskara, flandriera, frankoproventzera, frantzikera, katalana, korsikera, 8 oil hizkuntza eta okzitaniera.

**Frantziar
Estatuak
hizkuntza horien
irakaskuntzari
arreta ematen
dio nagusiki eta
hizkuntza-
politikaren
beste alorrak
eskualdeei
eta tokiko
kolektibitateei
uzten dizkie,
bakoitzaren
borondate onean
oinarrituz.**

1. mapa: Les langues régionales de France (Frantziako eskualdeetako hizkuntzak).



Iturria: www.axl.cefan.ulaval.ca/europe/francepolminor-cartelng_regionale.htm

1.3. Aurkezpenaren helburuak eta mugak – Frantziar Estatuaren jarrera, hizkuntza-komunitateen eskaera eta engaiamendua – Datu eskasa batzuetan

Gure helburu nagusia da Frantzia metropolarrean dagoen eskualdeetako hizkuntzen aniztasunaren argazki bat ematea, gutxitu diren hizkuntza horien egoera azaltzea. Ahal den neurrian azken urte hauetan izan den bilakaera aipatuko da, hizkuntza biziberritzerako ahaleginak eta eskualdeetan eramaten diren hizkuntza politikak azalduko dira.

Oro har jakin behar da hizkuntza horiei buruzko argibideak, ikerketak edo inkesta soziolinguistikoak sakabanatuak direla, partzialak eta hizkuntza-politikaren alor batzuetan urriak direla. Batzuetan aspaldikoak dira edo daturik ez da. Hori bereziki hizkuntza zenbaitentzat (flandriarra, frankoprovenzala, frantzikera, oil hizkuntzak). Frantziar Estatuak hizkuntza horien irakaskuntzari arreta ematen dio nagusiki eta hizkuntza-politikaren beste alorrak eskualdeei eta tokiko kolektibitateei uzten dizkie, bakoitzaren borondate onean oinarrituz. Horren ondorioz, ikusiko dugun bezala, denak gutxitu eta UNESCOren arabera arriskuan edo larriki arriskuan izanik ere (Moseley 2010), hizkuntza horien egoera era

askotakoa da, hizkuntza-komunitateen engaiamenduaren eta kolektibitate horien ahaleginen arabera izanez.

Halere Frantzia osoan legeria eta Estatuako politika uniformeak baitira, eskualdeetako hizkuntzek ezaugarri amankomun batzuk badituzte, ondoko lerroetan ikusiko dugun bezala. Oraingo egoera ulertzeko, beste ohar bat biziki garrantzitsua egiteko da: Frantzia metropolarreko eskualdeetako hizkuntzek hizkuntza-elkarteei eta hizkuntza-militanteei lehenik zor diete gehiago arriskuan edo desagertu ez izatea. Hain zuzen haiek lehenik hizkuntza horien aldeko ekintzak eraman dituzte, emeki-emeki hizkuntza-polikaren alor batzuk ireki dituzte XX. mendeko azken zatian. Estatuak eta era orokorragoan botere publikoek ondotik hizkuntza-politika gaia beren gain hartu dute, 90ko hamarkadan gutxi gorabehera, gizaratearen eskaerari erantzuteko, baina batzuetan ere aldarrikapenak isilarazteko.

1.4. Legegintza-koadro berdin-berdina eta ez aldekoa. Frantsesa hizkuntza ofizial bakarra

Bestalde, jakina da legezko koadroa hizkuntza horien aldekoa ez dela batere. Frantziako hizkuntza propioek ofizialtasun izpirik ez dute eskuratu, frantsesak ez ezik. Legegintza bat baizik ez da, estatuarena. Eskualdeek edo beste kolektibitateek ezin dute, Espainian bezala adibidez, lege edo dekreturik bozkatzeko ahal.

Frantzian frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra. Frantses konstituzioaren 2. artikulua hau dio: «Errepublikaren hizkuntza frantsesa da» (1992) eta 75-1. artikulua hau dio: «Eskualdeetako hizkuntzak Frantziaren ondare dira» (2008). Geroztik 2. artikulua hori beti baliatu da eskualdeetako hizkuntzen aldeko aitzinamenduak oztapatzeko eta, itxuraz baikorra izanik ere, 75-1a lagungarria ez da izan. Konstituzio Kontseiluak Legebiltzarrak 2021eko apirilaren 8an bozkatu zuen Eskualdeko Hizkuntzen Ondarea Babestari eta Sustatzeari buruzko Legearen bi artikulua konstituzioaren aurkakoak zirela ebatzi du: murgiltze-irakas-kuntza ereduari buruzkoa eta frantsesean erabili ez diren ikur diakritikoei buruzkoa. Hots, Europan Frantzia hizkuntza propioei buruzko kudeaketan salbuespen bat egoten da oraino. Iduriz, lege berri horrek laguntza handirik ez dio ekarriko hizkuntza horien biziberritzeari (Ipar Euskal Herrian adibidez), lurralde batzuetan indarrean diren hizkuntza-politika ekintza zenbait bermatzen baldin baditu ere eta, ondorioz, besteetan indarrean jartzeko aukera ematen baldin badu ere.

Frantzia metropolarreko eskualdeetako hizkuntzek hizkuntza-elkarteei eta hizkuntza-militanteei lehenik zor diete gehiago arriskuan edo desagertu ez izatea. Haiek lehenik hizkuntza horien aldeko ekintzak eraman dituzte, eta emeki-emeki hizkuntza-polikaren alor batzuk ireki dituzte XX. mendeko azken zatian.

Alsazian, sinplifikatuz erran daiteke egoera diglosikoa dela: alsaziera ahazkotasunean mugatzen da, aldiz aleman estandarra eremu formaletan nagusitzen da. Baina frantsesa da hizkuntza nagusia, eremu publikoetan zein pribatuetan.

Inkestetan alsaziarrak alsazierari atxikiak zaizkio, baina denentzat hizkuntza moderno bat ez da, alemana den bezala.

Legeria horrek eskualdeen eta tokiko kolektibitateen ekintzak eta ekimenak mugatzen ditu, koadro horretan gehiago egitea posible baldin bada ere. Oro har, eskualde eta lurralde denetan frantsesa da hizkuntza nagusia, administrazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan, ekonomian, kulturetan eta bizi publikoko beste eremu denetan.

2. ESKUALDEETAKO HIZKUNTZEN AURKEZPEN LABURRA BANAN-BANAN

Aurkezpeneak laburrak izanen dira, hizkuntza bakoitzak monografia sakona merezeki baideluke. Datu batzuk bakarrik emanen ditugu, zenbaki bakan batzuk. Baina, ahal den neurrian, konparaketa errazteko alor berdinetan emanen ditugu: hiztun-kopuruak, irakaskuntzan ikasle kopuruak irakaskuntza-ereduen arabera, liburu-argitalpen kopuruak edo Wikipedian artikuluko kopurua eta hizkuntzaren sailkapena.

Lan honen mugak horiek dira, baina beste biderik ez da artikuluko mugatu batean informazio ahal bezain argiena sarrarazteko.

2.1. Alsaziera

Alsazia eskualdeko biztanleen kopurua 1.884.150koa da (2019); Alsaziako Europako Erkidegoa osatzen du (*Collectivité européenne d'Alsace*).

Alsaziera dialekto alemana da (*elsassisch*), Alsazian mintzatua dena. Zehatz izateko, erabiliak diren germaniar dialektoen artean iparraldean Mosela ondoan frantzikera (frantsesez *francique*) aldaerak bereizi behar dira eta hegoaldean aldaera alemanikoak. Halere, orain, bi aldaera motak alsaziera izendapenean bilduak dira usu.

Sinplifikatuz erran daiteke egoera diglosikoa dela: alsaziera ahazkotasunean mugatzen da, aldiz aleman estandarra (*Hochdeutsch*) eremu formaletan nagusitzen da. Baina frantsesa da hizkuntza nagusia, eremu publikoetan zein pribatuetan.

Hiztun-kopuruez

Gutxi gorabehera 800.000 hiztunekin alsaziera (haren aldaera dialektal ezberdinetan) da Frantzia metropolitarrereko eskualdeetako hizkuntza mintzatutakoa okzitaniarekin batera. 1979an, alsaziarraren % 80k alemanez hitz egiten zutelarik zioten eta % 75ek dialektoz hitz egiten zutela. 2001ean, % 16k alemanez hitz egin zutelarik erran zuten eta % 61ek

dialektoetarik batez. 2012an, % 43k adierazi zuten alsazieraz ongi hitz egiten zutela, % 33k alsazieraz pixka bat hitz egiten zutela edo pixka bat ulertzen, eta % 25ek ulertzen ez zutela zioten (Reutner 2017: 132). Hots beherakada etengabekoa da.

Adineko jendea da dialektodunena. 2012an, 60 urtetik gorako alsaziarren % 70 ziren dialektodunak; 45 urtetik 59 urtera, % 54 besterik ez ziren; 30 urtetik 44ra, % 24 ziren eta 18 urtetik 29ra % 12k alsazieraz hitz egiten zakiten. Alsazieraz mintzatzen den biztanleen kopurua handiagoa da iparraldean hegoaldean baino eta landa-ingurunean hiri-ingurunean baino handiagoa da. Oro har ezaugarri hauek Frantziako eskualdeetako hizkuntza denentzat balio dute.

Irakaskuntzaz

Hezkuntzan aleman estandarra eta aldaera dialektalak irakasten dira irakaskuntza-eredu denetan⁴. Frantziako eskualdeetako hizkuntzen artean ikasle kopuru gordin handiena dute alsazierak eta alemanak: 31.544 ikasle lehen mailan eta 7.300 bigarren mailan (Euzet eta Kerlogot 2021: 33). Baina alsazierak berak ikasle guti ditu: 2020an 367 ikasle ziren lehen mailan, 217 bigarreanean eta 1.182 murgiltze irakaskuntza eredu ABCMen sarean. Murgiltze eredu Britainian edo Ipar Euskal Herrian baino gutiago garatua da.

Hizkuntza-politikaz eta estatusaz

Alsaziako Europako Erkidegoak, tokiko kolektibitateek eta udalek *Office pour la Langue et les Cultures d’Alsace et de Moselle* erakundearekin batera alsaziera sarrarazten dute eremu publikoan, administrazio-dokumentazioan, seinaleketan, bide seinalizazioan, etab. Baina aitzinamendu batzuk izanik ere, eremu publikoan frantsesaren eta alsazieraren arteko desoreka handia da.

Sinplifikatuz, inkestetan alsaziarrak alsazierari atxikiak zaizkio, baina denentzat hizkuntza moderno bat ez da (*dialecte* izendapena erabiltzen dute), alemana den bezala. Herri-antzerki tradizioa badago. Komunikabideetan, prentsan bereziki, alsazieraren presentzia ahultzen da, urria da eta aleman komunikabideak erraz eskuratzen dira. Alsaziar anitzek Alemanian eta Suitzan lan egiten dute (63.000 2013an). Alsazierak frantziar eta aleman munduen arteko zubia osatzen du, osa lezake, eta lan munduan alsazieraren edo alemanaren ezagutza aukera da gaur egun. Baina horrek aleman estandarraren aldekoa da gehiago.

Alsazierak frantziar eta aleman munduen arteko zubia osatzen du, osa lezake, eta lan munduan alsazieraren edo alemanaren ezagutza aukera da gaur egun. Baina horrek aleman estandarraren aldekoa da gehiago.

Bretoieraren biziberritzea helburu, emaitza batzuk hor dira hizkuntza-paisaian, erabilera publiko idatzian, kulturen eta komunikabideetan. Baina bretoi elkarten ekarpena ezinbestekoa da, gero eta ikusgarriagoa da, haiek botere publikoak bultzatu baitituzte bretoieraren biziberritzeko bidean.

2.2. Bretoiera

Bretainia Frantziako administrazio-eskualde bat da, 4 departamenduk osatua⁵. 2020an Bretainiako populazioa 3.371.200 biztanlekoa zela kalkulatu zen eta XX. mendeko erditik kopuru hori etengabe handitzen da.

Bretoiera hizkuntza zelta bat da, Bretainiako mendebaldean (Bretainia Beherea) erabilia dena. Ekialdean (Bretainia Garaia) oil hizkuntza bat badago, galoa (ikus hemen 2.9.).

Hiztun-kopuruez

2018an, 225.000 bretoieradun kopurua ebaluatu zen. *Office public de la langue bretonne* erakundearen zenbatespena da; batzuek gutiago direla erraten dute, 200.000 inguru. Beraz, biztanleen % 6,7k inguru bretoieraz hitz egin dezakete, ongi edo aski ongi. Bretainiako mendebaldean daude nagusiki.

Bestalde noizbehinkako erabilera nagusitzen da; % 49koa da, eguneroko % 20koa da eta maizkoa % 20koa ere (Reutner 2017: 153). Ikusi dugun alsazieraren ezaugarria berriz aurkitzen da: adineko jendea da bretoiera hobeki menperatzen duen adin taldea. 60 urtetik gorako bretoieradunak hiztunen % 70 dira, adin talde hori biztanle osoen % 30 baino gehiago ez delarik. Bretoieraz biziki ongi edo ongi mintzatzen diren hiztunak % 4 dira 40 urtetik beherakoan artean eta % 10 40-59 urtekoen artean. Aldiz % 46 dira 75 urte eta gehiagokoan artean.

Irakaskuntzaz

Bretoieraren eta bretoierazko irakaskuntza zinez garatu da azken hamarkada hauetan. Oren parekotasun irakaskuntza-ereduan 2020an 8.055 ikasle ziren lehen mailan, 7.418 bigarrenetan eta murgiltze ereduan 4.009 bi mailetan Diwan-en sarean (Euzet eta Kerlogot 2021: 10-11). Hala eskolan nola gau-kurtsoetan bretoi estandarizatu bat erakusten da. Gaur egun, bretoi estandar hori ama-hizkuntza duten gazteak badira.

Hizkuntza-politikaz eta estatusaz

Bretainiako eskualdeak eta tokiko botere publikoek (departamenduak, udalak) bretoieraren biziberritzea dute helburu, gero eta gehiago. Eta emaitza batzuk hor dira hizkuntza-paisaian, erabilera publiko idatzian, kulturen eta komunikabideetan. Baina bretoi elkarten ekarpena ezinbestekoa da, gero eta ikusgarriagoa da, haiek botere publikoak bultzatu

baitituzte bretoieraren biziberritzeko bidean. Ekimen anitz badira. Adibide bat: Wikipedian bretoieraz 63.870 artikulua ziren 2018/02/14an eta hizkuntzen artean bretoiera 72.a sailkatua zen 2016an (Reutner 2017: 163). 2019an, 91 liburu bretoieraz argitaratu dira (*Office public de la langue bretonne* 2021), 2002 eta 2009 artean 817 izan ziren (Harrison eta Joubert 2019: 227).

Arazo nagusiak horiek dira: hirurogei urtez bretoierak hiztunen % 85 galdu ditu eta datozen urteetan hiztun kopuruak beheratzen jarraiki beharko luke oraino. Belaunaldien arteko transmisioa biziki murrizta da orain, bretoieraren familia-transmisio gabeko hirugarren belaunaldia dela erran daiteke. Belaunaldi gazteek eskolan ikasten dute eta desoreka handia da familian ikasi zuten adineko bretoien hizkuntzaren eta gero eta gehiago eskolan ikasten duten gazteen hizkuntzaren artean.

2.3. Euskara (Ipar Euskal Herrian)⁶

Ipar Euskal Herriak (IEH) Bearnorekin batera Pirinio Atlantikoetako departamendua osatzen du. 2021ean (01-01) 312.750 pertsona inguru bizi dira Ipar Euskal Herrian eta kopuru hori handitzen da etengabe. Euskarari buruz datu anitz eta aski zehatz baditugu Eusko Jaurlaritzaren 5 urtetarik behinko inkesta soziolinguistikoei esker. Beste Frantziako eskualdeetako hizkuntzek holako inkesta erregular eta sakonik ez dute, han-hor inkesta batzuk baldin badira ere.

Hiztun-kopuruez

IEHn Euskaldunen ehunekoa apaltzen da etengabe: 1996an euskaldunak biztanleen % 26,4 ziren, 2016an % 20,5 ziren (% 33,9 Euskal Autonomia Erkidegoan eta % 12,9 Nafarroan). Euskaldun hartzaileen ehunekoa, aldiz, ez da aldatu: % 9,3koa zen 1996an eta 2016an. Halere, euskararen eta euskarazko irakaskuntzari esker, belaunaldi gazteetan euskararen ezagutza handitzen da: 1996an 16-24 urte bitartekoen % 11,3 ziren euskaldun eta % 18,9 2016an. Era berean, 25-34 urte bitartekoen artean % 13,6 ziren euskaldun 1996an eta % 15,7 ziren 2016an.

Irakaskuntzaz

Beste eskualdeetako hizkuntzei erkatuz, Ipar Euskal Herrian euskararen murgiltze- edo oren parekotasun-irakaskuntza elebidunaren tasa handiena da. 2019an lehen mailan ikasle denen % 40,9 ziren bi irakaskuntza erduetan (2004an % 24,5 ziren), horietan ama-eskoletan % 46,9 ziren (2004an % 30,4). Kolegioan 2019an % 22,5 ziren irakaskuntza-eredu batean edo

Orain, bretoieraren familia-transmisio gabeko hirugarren belaunaldia dela erran daiteke. Belaunaldi gazteek eskolan ikasten dute eta oreka handia da familian ikasi zuten adineko bretoien hizkuntzaren eta gero eta gehiago eskolan ikasten duten gazteen hizkuntzaren artean.

**Frantziar
Estatuak
gomendaturik
EEPren modeloa
gutxi gorabehera
kopiatu da beste
frantziar lurralde
batzuetan. Baina
oro har iduritzen
zaigu urteekin
paper bultzatzaile
eta berritzaile
hori ahuldu dela.
Beharrezkoa
den kudeaketa
administratiboa
nagusitzen da
orain, EEP alor
eta ekimen
anitzetan sartu
baita.**

bestean eta lizeoan gutiago, % 12,4. Galtze fenomeno hori bigarren mailan frantziar eskualdeetako hizkuntza denekin aurkitzen da, astean 2 edo 3 oreneko irakaskuntzan salbu (alemanarena Alsazian adibidez).

2020an oren parekotasun-irakaskuntza ereduari 6.836 ikasle ziren lehen mailan, 5.407 bigarren; gainera murgiltze ereduari 3.782 ikasle ziren bi mailatan Seaskan (irakaskuntza pribatu laikoa) eta 512 irakaskuntza publikoaren ama-eskoletan (Euzet eta Kerlogot 2021: 10-11). Beste hizkuntzen datuekin alderatuz, zenbaki gordinen eta are gehiago proportzionaliki Ipar Euskal Herrian da murgiltze-irakaskuntza eredu garrantzitsua dela.

Hizkuntza-politikaz eta estatusaz

Hizkuntza politika publiko bat eramateko estatuak, departamenduak eta eskualdeak Euskararen erakunde publikoa (EEP) sortu zuten 2004an (2017an Euskal Hirigune Elkargoa lotu zaio). Egitura publiko horrek urrats garrantzitsuak egin ditu euskararen egoera hobetzeko, euskal-elkarteekin hizkuntza politika partekatu bat eramanez. Alor batzuen garapenean parte hartu du: euskararen eta euskarazko irakaskuntza, euskara teknikarien lanpostuak, euskal elkarten lanaren bermatzea eta profesionalizatzea... Beste batzuk sortu ditu: euskarazko haurtzaindegia eta haur ttipien harrera. Eta frantziar Estatuak gomendaturik EEPren modeloa gutxi gorabehera kopiatu da beste frantziar lurralde batzuetan. Baina oro har iduritzen zaigu urteekin paper bultzatzaile eta berritzaile hori ahuldu dela. Beharrezkoa den kudeaketa administratiboa nagusitzen da orain, EEP alor eta ekimen anitzetan sartu baita.

Euskara mugaz gairikoa da. Hego Euskal Herriaren ondoan izatea biziki lagungarria da euskararen estatusaren alorrean, zuzenki edo zeharka. Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza-politika publikoa aitzinatua da. Beste Frantziako eskualdeetako hizkuntza gutik aukera hori dute. Egoera hurbilena katalanarena litzateke (ikus 2.7.).

2018an, 2.138 liburu euskaraz argitaratu dira ISBN batekin, 2017an 2.294...⁷; horietan Ipar Euskal Herrian gutxi gorabehera 20 bat urtero.

Wikipedian 2021eko agorrilaren 20an 378.538 artikulua ziren euskaraz eta 2019an Interneten presentzia gehien duten hizkuntzen artean 29.a sailkatua zen. Bistan da, alor horietan Ipar Euskal Herriko ekarpena aski murrizta da, gutxiesgarria izan gabe, eta emaila baino jasotzailea gehiago dugu lurralde hori. Euskararen etorkizuna egoera hobean den

Euskal Autonomia Erkidegoko euskararenari lotua zaio, Ipar Euskal Herrian euskararen bizindarra emeki-emeki goratzen baldin bada ere (ikus *Bat* 118: 11-25).

2.4. Flandriera (frantziar flandriera)

Flandriera nederlanderaren dialektoa da, germaniar hizkuntza. Belgikan mintzatua da nagusiki. Halere, Dunkerque eskualdean, Frantziako Nord departamenduaren iparraldean, mendebaldeko flandrieraren azpi-dialekto bat mintzatua da oraindik: *Fransch Vlaemsch* (frantziar flandriera). Lehen, XXI. mendean baino askoz eremu zabalagoan erabilia zen. Frantziar Flandrian 1.733.184 biztanle ziren 2008an eta Dunkerqueko hiriko *arrondissement*-en 374.966 2018an.

Hiztun-kopuruaz

Hiztun ia guztiak adinekoak dira eta baserrian bizi dira (Kremnitz 2013: 475). 50.000 lirateke (eu.wikipedia.org/wiki/Flandriera). 1999an 60.000 ziren INSEEren arabera (*Institut national de la statistique et des études économiques*). Kopuru horiek ez dira batere zehatzak, ebaluaketak dira.

Irakaskuntzaz

Beren txostenean Euzet eta Kerlogot deputatuek flandrieraren irakaskuntza ez dute aipatzen (2021). Hain zuzen, duela hamar urte baino gehiagotik desagertu da. Baina berriz 2021eko irailean has liteke, ikastaldi batez asteen lehen edo bigarren mailan, Lilleko Akademiak irakasleak kontratatzeke deialdia egin baitu⁸.

Hizkuntza-politikaz eta estatusaz

Institut de la langue régionale flamande erakundeak (ILRF) elkarte ugari eta hautetsiak biltzen ditu. Bere helburu nagusia da Frantziako flandriera babestea, transmititzea eta sustatzea bizi sozialean, kulturean eta ekonomikoan. Baliabideak murrizak dira. Flandriera hizkuntza mugaz gaindikoa da, baina egoera euskararen edo katalanaren egoeraz ezberdina da, nederlanderaren eta flandrieraren arteko harremanik ez baita. Belgikako flandriarrekin harremanak murrizak dira eta Frantziakoak bakartuak dira.

2.5. Frankoproventzera (Frantzian)

Frankoproventzera (*arpitan* deitua ere) latinetiko hizkuntza da Frantzian, Italian eta Suitzan erabiltzen dena. Bere kokapen geografikoagatik

Flandriera hizkuntza mugaz gaindikoa da, baina egoera euskararen edo katalanaren egoeraz ezberdina da, nederlanderaren eta flandrieraren arteko harremanik ez baita. Belgikako flandriarrekin harremanak murrizak dira eta Frantziakoak bakartuak dira.

Frankoproventzera arriskuan dago, baina, gaur egun, gorakada txiki bat egin du, batez ere elkarteen federazioek bultzatua. Hizkuntzaren biziberritzeko tokiko ekimen zatikatuez gain, azken urte hauetan lurraldez gaindiko mugimendua garatzen da, hizkuntza arpitan deituz.

Frantzian, iparraldeko oil hizkuntzekin eta hegoaldeko okzitanierarekin ezaugarri komun batzuk ditu, oil hizkuntzekin gehiago (ikus mapa, 1.2.). Germaniar hizkuntzetako eta italiar-erromantzeetako elementuak ere biltzen ditu. Ohiko Rodano-Alpeak eskualdeko zatirik handienean aurki daiteke, 11 departamendutan. 2012an 6.341.160 biztanle ziren.

Hiztun-kopuruaz

Frantzian, zentsu zehatzik ez da. 2013an, mintzatzeko gai ziren hiztunak 50.000 ziren gutxi gorabehera eta 200.000 hiru estatuetan (Reutner 2017: 96). Edo behar bada 60.000 2018an (Harrison eta Joubert 2019: 154). Rodano-Alpeetan biztanleria osoaren % 1 baino gutiago dira (Kremnitz 2013: 493). Hiztun ia guztiak 60 urte gorakoak dira eta baserrian bizi dira (Kremnitz 2013: 493). Hizkuntzaren guraso-haur transmisioa gelditu da.

Halere, hizkuntza (*arpitan* haiek deitua) ikasi duten helduren komunitate berri txiki bat sortu da, lurraldeen artean harremanak garatzen dituen jardunbide komunitate batean (Harrison eta Joubert 2019: 152-162). Hiztun tradizionalaren eta berriaren arteko dikotomia indarrean dago.

Irakaskuntzaz

Euzet eta Kerlogot deputatuen txostenean frankoproventzeraren irakaskuntza ez da aipatzen (2021). Halere irakatsia litzateke Savoiaiko kolegio eta lizeo zenbaitetan. Hots irakaskuntzaren egoera flandrierarenari hurbil zaio (ikus 2.4.).

Hizkuntza-politikaz eta estatusaz

Hizkuntzaren erabilera, oro har, pribatutasunera mugatzen da; bizitza publikoan gutxi agertzen da (ohar horrek flandrierarendako balio du ere). Eguneroko erabilera adineko bikote edo haurridetan aurki daiteke bakarrik edo tokiko sare ttipi mugatutan. Idazkera arautu proposamenak izan dira, baina hiztun ez alfabetatuari urrun zaizkio. Frankoproventzera arriskuan dago, baina, gaur egun, gorakada txiki bat egin du, batez ere elkarteen federazioek bultzatua. Hizkuntzaren biziberritzeko tokiko ekimen zatikatuez gain, azken urte hauetan lurraldez gaindiko mugimendua garatzen da, hizkuntza *arpitan* deituz (Harrison eta Joubert 2019: 152), ortografia berezi batekin, Interneten edo *Radiô Arpitania* irratiarekin adibidez. Wikipedian frankoproventzeraz 3.230 artikulua ziren 2018/12/08an eta hizkuntza 200.a zen artikuluko-kopuruaz.

2.6. Frantzikera (Moselan)

Alsazieraren aurkezpenean frantzikera azaltzen hasi gara (ikus 2.1.). Hemen Lorrena eskualdeko Mosela departamenduko iparraldean erabilia den frantzikera (*Lothringer Platt* edo *Moselfränkisch*, frantsesez *francique*) azalduko dugu. Departamendu osoan 1.036.000 biztanle ziren 2019an. Alsaziera goi-alemanari lotua zaio (*Oberdeutsch*), frantzikera aleman ertainari zaio lotua (*Mitteldeutsch*). Alemanian frantzikeraren beste aldeararak erabiltzen dira, Renania-Palatinatua eta Sarren. Luxenburgon eta Belgikan Luxenburgoko probintzian ere erabiltzen da.

Hiztun-kopuruaz

Inkesta zehatzik ez dugu hiztunen kopurua ebaluatzeko. 1990ean *European Bureau for Lesser-Used Languages* erakundearen arabera 175.000 ziratekeen. *Culture et bilinguisme de Lorraine* elkarteak 44.700 ebaluatzen zituen (Kremnitz 2013: 415).

Irakaskuntzaz

Beren txostenean Euzet eta Kerlogot deputatuek frantzikeraren irakaskuntza aipatzen dute, *langue régionale des Pays Mosellans* deituz (Euzet eta Kerlogot 2021: 10). 2020an 170 ikasle ziren lehen mailan, 154 bigarrean; murgiltze-irakaskuntza eredurik ez da. Hots, irakaskuntza guti garatua da. Alemana ere irakasten da.

Hizkuntza-politikaz eta estatusaz

Familia-transmisioa kasik desagertu da eta frantses-aleman elebitasuna gutitzen da. Horrek eragina dauka Alemanian lan egiten duten mugaz gaindiko langile-kopuruan (Kremnitz 2013: 423). *Culture et Bilinguisme de Lorraine - Zweisprachig, unsere Zukunft* elkarteak hizkuntzak (frantzikera eta alemana) eta tokiko kultura sustatzen eta bultzatzen ditu. Baina ez du, adibidez, Alsazian alsaziera sustengatzen duten elkarten indarra.

2.7. Katalana (Ipar Katalunian)

Ipar Katalunia (*Catalunya del Nord*) Okzitania eskualdeko Ekialdeko Pirinioetako departamenduan kokaturik dago. Beste zati txiki bat okzitaniaradun da. Departamendu osoan 476.357 biztanle inguru dira 2021ean (01-01).

Oro har 10 milioi pertsona inguru katalanaz hitz egiten dira, Espainian nagusiki, Andorran eta, proportzio txikiagoan, Frantzian eta Italia ekial-

Inkesta zehatzik ez dugu hiztunen kopurua ebaluatzeko. 1990ean EBLUL erakundearen arabera 175.000 ziratekeen. Frantzikeraren familia-transmisioa kasik desagertu da eta frantses-aleman elebitasuna gutitzen da. Horrek eragina dauka Alemanian lan egiten duten mugaz gaindiko langile-kopuruan.

**Ipar Katalunia
hiztunen tasa
apalena duen
Kataluniako
hizkuntza-eremua
da. “L’Espai Catal
Transfronterer”-en
inkestaren
arabera, 2015ean
biztanleriaren %
35,5k katalanaz
mintzatzen
bazakitela
aitortzen zuten,
gutxi gorabehera
130.979 hiztun.
Biztanleriaren %
12,7k katalana
lehen hizkuntza
zuten eta %
5,7k eguneroko
bizian katalana
erabiltzen zuten.
Familia-
transmisioa biziki
ahula zen: % 0,7.**

dean. Katalana Europako hizkuntza mintzatuenen bederatzigarrena da.

Hiztun-kopuruaz

Ipar Katalunia hiztunen tasa apalena duen Kataluniako hizkuntza-eremua da. Hiztun-kopuruaren ebaluaketak fidagarriak ez dira, inkestak metodologikoki ezberdinak direlako. *L’Espai Català Transfronterer*-en inkestaren arabera, 2015ean biztanleriaren % 35,5k katalanaz mintzatzen bazakitela aitortzen zuten, gutxi gorabehera 130.979 hiztun. Biztanleriaren % 12,7k katalana lehen hizkuntza zuten eta % 5,7k eguneroko bizian katalana erabiltzen zuten (2015: 4-5). Familia-transmisioa biziki ahula zen: % 0,7. 2013an beste txosten baten arabera hiztunak 170.000 ziren, 80.000k hizkuntza erregulariki erabiltzen zuten (Harrison eta Joubert 2019: 276).

Landa-ingurunean hitz egiten da katalanez batez ere, eta hizkuntzaren familia-transmisioak eten egin du hein handi batean azken hogeita hamar urte hauetan.

Irakaskuntzaz

2020an 9.333 ikasle ziren oro har lehen mailan (haien artean 3.197 parekotasun-irakaskuntza ereduari), 1.673 ikasle bigarren mailan (haien artean 1.014 parekotasun-irakaskuntza ereduari). Horiez gain 1.047 ikasle ziren bi mailetan murgiltze ereduari La Bressolaren sarean (irakaskuntza pribatu laikoa) eta 220 ama-eskola publikoetan (Euzet eta Kerlogot 2021: 10-11 eta 33). 2016-2017 ikasturtean, eredu batean edo bestean katalanaren edo katalanezko hezkuntza jasotzen zuten ikasleen ehunekoa % 25ekoa zen.

Hizkuntza-politikaz eta estatusaz

2007ko abenduaren 10ean, Ekialdeko Pirinioetako Kontseilu Nagusiak gutun bat bozkatu zuen hizkuntza eta kultura katalanaren alde⁹. Orduan oihartzun handia izan zuen Ipar Katalunian eta Frantzian eskualdeetako hizkuntza duten beste lurraldeetan, hizkuntza horien elkarrean eta militanteen artean. Baina geroztik erran genezake oldarra gelditu dela edo promesak guti bete direla. Administrazioan katalanaren erabilera murriztu da: seinaleketan, publizitate-kanpainetan edo logo eta dokumentu batzuetan (Reutner 2017: 115). Katalana erabilia da irrati publikoan (France Bleu Roussillon) eta osoki Ràdio Arrels irratiari. Gainera, katalana mugaz gaindiko izanez, beste komunikabide katalanak jasotzen dira. Wikipedian katalanez 572.563 artikulua ziren 2018/02/15ean

eta katalana 18.a zen artikulu-kopuruaz. Hego Kataluniako laguntza publikoa garrantzitsua da.

Kultura eta nortasun katalanaren sinboloak nonahikoak dira Ipar Katalunian, baina katalanaren erabilera puntual eta sinbolikoa da nagusiki (Kremnitz 2013: 461-462 eta Reutner 2017: 120). Hizkuntza mugaz gaindikoa izanez, Ipar Kataluniako literatura Perpinyàn argitaratzen da baina ere Bartzelonan non merkatua zinez handiagoa den. Katalan estandarra ipar-katalanaren lehiakidea da, gero eta gehiago. Prestigioa eta komunikazio-erraztasuna eramaten ditu katalanaren lurraldeetan.

2.8. Korsikera

Mediterraneoan Korsika uharteak erakunde-antolamendu berezi bat dauka, Frantzia metropolitarran bakarra: Korsikako Lurralde-Kolektibitatea. Kolektibitatean 350.273 biztanle inguru dira 2021ean (01-01). Sinplifikatuz, korsikera Toscanako italierekin lotura estua duen hizkuntza erromanikoa da, talde italiar-erromantzekoa. Sardiniako iparraldean ere erabiltzen da.

Hiztun-kopuruaz

2012an eraman zen inkesta baten arabera, inkestatuen % 58k korsikera ongi ulertzen zuten eta % 28 ongi mintzatzen ziren (Collectivité territoriale de Corse 2013: 84). Familian % 10 korsikeraz mintzatzen ziren beti. 16-24 urtekoen % 26 ahozko adierazpena egiteko gai izango ziratekeen eta 25-34 urtekoen % 23. Oro har biztanleen 86.800 eta 130.200 inguru korsikadun ziratekeen. Baina familia-transmisioa % 3-4koa litzateke.

Irakaskuntzaz

2020an 12.407 ikasle ziren oro har lehen mailan (haien artean 9.062 parekotasun-irakaskuntza ereduan), 10.113 bigarren mailan (haien artean 2.221 parekotasun-irakaskuntza ereduan). Horiez gain, ama-eskola publikoetan, murgiltze-irakaskuntza ereduan 312 ikasle ziren (Euzet eta Kerlogot 2021: 10-11 eta 33). Beraz murgiltze-irakaskuntza eredia guti garatua da.

Hizkuntza-politikaz eta estatusaz

Hizkuntza estandarizatua ez da: *polinomia* kontzeptuaren izenean, idatzian dialekto edo aldaera nagusi denak ber heinean onartu dira. Baina aldaera landuago eta batuago bat garatzen da intelektuelen edo komunikazio-profesionalen artean. Korsikako Lurralde-Kolektibitateak

2012an eraman zen inkesta baten arabera, inkestatuen % 58k korsikera ongi ulertzen zuten eta % 28 ongi mintzatzen ziren. Familian % 10 korsikeraz mintzatzen ziren beti. Oro har biztanleen 86.800 eta 130.200 inguru korsikadun ziratekeen. Baina familia-transmisioa % 3-4koa litzateke.

Hiztun-kopurei buruz egiazko inkestarik ez da usuenik eta zaila da erratea hiztunak zenbat eta nolakoak diren. Hizkuntza horien aldeko mugimendu kulturalak indartsuagoak baldin badira, oro har botere publikoen, bereziki, Estatuaren ezaxola azpimarratzekoa da.

hizkuntza-politika bolontarista eramaten du. Korsikako Asanbladan korsikera idatzi eta mintzatua indarrean dago, tokiko kolektibitate batzuetan ere bai. Baina frantsesezko dokumentuek bakarrik balio ofiziala dute (ikus hemen 1.4.). 2013ko maiatzean, Asanbladak korsikeraren eta frantsesaren koofizialtasuna bozkatu zuen, sinbolikoki erran genezake. Ordea 2018an Frantziako lehendakariak korsikako hizkuntzaren “koofizialtasunaren” aurka zela erran zuen, “Frantziako Errepublikan hizkuntza ofizial bat, frantsesa” zegoela erranez. Horrez gain, koofizialtasunarekin batera, Asanbladak onartu zuen Korsikera Hizkuntzaren Gutunaren helburu nagusia zen eta da hizkuntza korsikeraren erabilera eta ikusgarritasuna erraztea bizitza sozialeko eremu guztietan. Komunikabideetan korsikeraren erabilera hedatzen da, Interneten (Wikipedian korsikeraz 5.497 artikulua ziren 2018/02/15ean), irrati eta telebistan. Baina, adibidez, korsikera osozko egunkaririk ez da.

2.9. Oil hizkuntzak

Oil hizkuntzak galo-erromantze hizkuntzak dira, Frantziako iparraldeko erdian erabiltzen direnak, eta Belgikan valonieraren kasuan adibidez edo Erresuma Batuan normandierarenean. Linguistikoki, kulturalki eta lurraldez frantsesari hurbil, marjinatu eta desbalorizatuak dira (Harrison eta Joubert 2019: 56-57). Batzuek hizkuntza-estatutua ez diete ematen, dialekto edo *patois* delakoak direla erranez. Cerquigliniren 1999ko txostenean zazpi dira, ordena honetan emanak: *franc-comtois*, *wallon*, *picard*, *normand*, *gallo*, *poitevin-saintongeais*, *bourguignon-morvandiau*, *lorrain*. Galoa ez ezik, Hezkuntza nazionalean hizkuntza horiek ez dira erakasten. Hitztun-kopuruei buruz egiazko inkestarik ez da usuenik eta zaila da erratea hiztunak zenbat eta nolakoak diren. Era orokorrean hizkuntza horien aldeko mugimendu kulturalak indartsuagoak baldin badira, oro har botere publikoen, bereziki, Estatuaren ezaxola azpimarratzekoa da.

Borgoinera

Oil hizkuntza hori Borgoinan eta bereziki Morvanen erabilia da. Dialektologoen ongi ikertua, XXI. mendean elkarte militante batzuei esker ikusgarritasuna eta erakargarritasuna irabazi ditu; han hor helduentzako kurtsoak badira, tokiko irradian eta prentsa idatzian presentzia txiki-txikia badu, Interneten blog zenbait sortu dira, etab. (Kremnitz 2013: 534). Baina familia-transmisioa ahula da, hiztunak adinekoak dira eta hizkuntzaren eragina nagusiki Morvaneko frantsesean nabari da.

Franc-comtois hizkuntza

Hizkuntza galo-erromantze hori Frantzian (Franche-Comté-n eta Alsa-ziako lurralde txiki batean) eta Suitzan (Jurako kantonamenduan) erabilia da. Lorreneran eta valonieran bezala, germaniar eragina nabaritzen da hizkuntzan. 3.800 hiztun ziren XX. mendeko bukaeran¹⁰. Hizkuntza ez da bizitza publikoan agertzen, eta hiztun-talde txikitari mantentzen da, elkarte batzuek bultzatua.

Galoa

Oil hizkuntza hau Bretainiako ekialdean (Bretonia Garaia) erabilia da. 2004an Bretoniako eskualdeak galoa ofizialki onartu zuen bretoia bezala. Irakaskuntzari buruzko Euzet eta Kerlogoten txostenean aipatzen den oil hizkuntza bakarra da. 2020an lehen mailan 53 ikasle ziren eta bigarren mailan 199 (2021: 10). Hiztun kopuruak ezezagatuak dira, datarik gabeko estimazio baten arabera tokiko biztanleriaren % 1etik % 5era hiztun aktiboak ziren, erran nahi luke 40.700 hiztunetarik 200.000ra (Kremnitz 2013: 535). Galoa batez ere ahozkoa den arren, unibertsitateko ikasketak eta estandarizazio-ahaleginak egiten dira, eta galozko lanak argitaratzen dira. 2007. eta 2014. urteen artean, 43 titulu argitaratu ziren, galoz edo zati batean (Reutner 2017: 152. or.). Frantse- sa hizkuntza nazionala eta ofizialaren eta bretoia Bretoniako hizkuntza enblematikoaren artean galoa marjinalizatua da, oil hizkuntzen artean dinamikoan izanik ere.

Lorrenera¹¹

Lorrenera (*lorrain* edo *lorrain roman* frantsesez) hizketa galo-erromantze multzoa da Lorrenan orain guti erabilia dena, nahiz interesa gehiago pizten duen (Kremnitz 2013: 537).

Normandiera

Normandiera oil hizkuntza Normandian eta Erresuma Batuko uharte zenbaitetan (Jersey, Guernesey...) erabilia da. 2009ko estimazio batek 20.000ko hiztun-kopurua ebaluatzen zuen (Kremnitz 2013: 537), beste batek 100.000koa 2010ean¹². XX. mendeko erditik familia-transmisioa gelditu zen eta belaunaldi gazteak hiztun “pasiboak” dira orain. Frantzian Hezkuntza Nazionalak normandieraren irakaskuntza ez du aipatzen (Euzet eta Kerlogot 2021), aldiz Jerseyen adibidez 1.000 ikasle ziren 2008an (Kremnitz 2013: 538). Normandiera presente da Interneten (hiztegiak, ikasteko metodoak, argitalpenak, irratia saioak...). Wikipedian normandieraz 3.690 artikulua ziren 2018/02/16an.

Oil hizkuntza hau Bretoniako ekialdean (Bretonia Garaia) erabilia da. 2004an Bretoniako eskualdeak galoa ofizialki onartu zuen bretoia bezala. Frantse- sa hizkuntza nazionala eta ofizialaren eta bretoia Bretoniako hizkuntza enblematikoaren artean galoa marjinalizatua da, oil hizkuntzen artean dinamikoan izanik ere.

**Galoarekin
pikardiera da
oil hizkuntza
aipatuena.
Hiztun-kopurua
200.00 baino
gehiagokoa
litzateke.
Hizkuntza gero
eta gutiago
erabilia da, nahiz
pikardierazko
liburu eta
ikuskitun
gehiago diren
elkarte kulturaleri
esker.**

Pikardiera (*picard* frantsesez)¹³

Pikardiera hizkuntza galo-erromantzeen taldekoa da. Frantzian Pikardian eta Nord-Pas-de-Calaisen erabiltzen da (5 departamendutan), eta Belgikan¹⁴. Galoarekin pikardiera da oil hizkuntza aipatuena. Hiztun-kopurua 200.00 baino gehiagokoa litzateke (Harrison eta Joubert 2019: 204). Hezkuntza Nazionalak pikardieraren irakaskuntza ez du aipatzen (Euzet eta Kerlogot 2021). Hizkuntza gero eta gutiago erabilia da, nahiz pikardierazko liburu eta ikuskizun gehiago diren elkarte kulturaleri esker. Interneten ere pikardieraren ikusgarritasuna handitu da azken urte hauetan. Wikipedian pikardieraz 3.619 artikulua ziren 2018/02/16an. Eguneroko jardunean, pikardierak berezitasuna galtzeko joera du eta eskualdeko frantsesarekin nahasten da. Gutxi erabilia, hizkuntzaren eragina gazteen frantsesean nabari da.

Poitevinera-saintongeaisera

Poitevinera-saintongeaisera iparraldean Loira ibaiaren eta hegoaldean Girondaren artean erabiltzen da. Oil hizkuntza hori substratu okzitanoak markatua da. Aldaerak kontuan hartuz, batzuek hizkuntzaren batasuna ez dute onartzen (Harrison eta Joubert 2019: 70-75). Ez dakigu zenbat hiztun diren gaur egun (Kremnitz 2013: 540). Estimazioa zehaztugabe batek 200.000 eta 300.000 hiztun arteko kopurua ematen du¹⁵. Hizkuntza ez da irakatsia eskolan; aldiz, estandarizatu ez izanik ere, irratian, ikuskizunetan, euskarri idatzietan gero eta gehiago agertzen da.

Valoniera

Valoniera hizkuntza galo-erromantzeen taldekoa da. Belgikan erabilia da nagusiki eta Frantziako Xanpainiako iparraldean, lurralde txiki batean. Wikipedian valonieraz 14.524 artikulua ziren 2018/02/15ean.

Xanpainera

Oil hizkuntza hori Cerquigliniren 1999ko eskualdeetako hizkuntzen zerrendan ez zen aipatzen. Xanpaina historiko osoan ezagatua da xanpainera eta Belgikako bost udaltan non dekretu baten babesa duen. Ez dakigu zenbat hiztun diren gaur egun (Kremnitz 2013: 535) eta Hezkuntza Nazionalak irakaskuntza ez du aipatzen. Hizkuntzaren ikusgarritasun idatzia handitu da hiztegi batzuei, aldizkari bati eta tokiko prentsari esker; ahozkoan agerpen xume batzuk komunikabide zenbaitetan azpimarra daitezke (Kremnitz 2013: 535).

2.10. Okzitania

Okzitania (edo oc hizkuntza) hizkuntza erromanikoa da Frantziako hego-herenean erabiltzen dena, 39 departamendutan (27 dira osoki okzitaniarrek). Italian Okzitaniar Ibarretan eta Guardia Piemontesen, Espainian Arango haranean ere hitz egiten da okzitanieraz. Okzitanieraren hizkuntza- eta kultura-eremua Okzitania / ok. *Occitània* / fr. *Occitanie* edo Oc herrialdea deitzen da¹⁶. Hizkuntzak, aldaera geografikoak baititu, bere osotasunean ez da beti kontuan hartua. Batzuek hizkuntzaren batasuna dudatan ematen dute. Hezkuntza Nazionalak adibidez usuenik *occitan-langue d'oc* deitzen du, baina okzitanieraz gain, gaskoia, *languedocien*, limousinera, *nissart* (Nizako eskualdeko aldaera) eta proventzera bereizten ditu Euzet eta Kerlogot diputatuen txostenean (2021: 10).

Hiztun-kopuruaz

Okzitanian lurralde osoarendako baliozko datu estatistikorik ez dago. Estimazioak baizik ez dira. Frantzian, Okzitanieraren Erakunde Publikoaren arabera (*Office public de la langue occitane*), 2019an Akitania Berria eta *Occitanie* eskualdeetako biztanleen % 7 inguru okzitanieraz mintzatzen ziren, hau da, 540 000 hiztun baino gehiago bi eskualde horietarako¹⁷. Ehunekoak desberdinak dira departamenduen arabera, tokika. 2013an Frantziako Kultura Ministerioak Frantzian soilik 670.000 hiztun aipatzen zituen. Dena den okzitania eskualdeetako hizkuntza mintzatuen da, alsazierarekin batera. Oro har familia-transmisioa % 5koa litzateke, % 12koa Akitanian. Alde batetik okzitania ama-hizkuntza duten adineko hiztunak dira, bestetik okzitanieradun berriak eskolan edo helduentzako ikastaldietan ikasi dutenak. Bi hiztun-talde horien arteko harremanak urriak dira.

Irakaskuntzaz

Hezkuntza Nazionalaren arabera, 2020an okzitanieraren irakaskuntzan (oren guti astean) eta parekotasun-irakaskuntza eremuan 16.463 ikasle ziren lehen mailan (gorago aipatu hizkuntza aldaera denak bildurik). Bigarren mailan 12.138 ziren (okzitania, *nissart* eta proventzera aipatzen dira bakarrik). Gainera murgiltze eremuan 3.782 ikasle ziren bi mailatan Calendretaren sarean (irakaskuntza pribatu laikoa) (Euzet eta Kerlogot 2021: 10-11).

Hizkuntza-politikaz eta estatusaz

Frantziako beste eskualdeetako hizkuntzek bezala, okzitanierak ofizialtasunik ez du (ikus 1.4. hemen)¹⁸. Eskualde batzuek, adibidez Aki-

Okzitanian lurralde osoarendako baliozko datu estatistikorik ez dago. Estimazioak baizik ez dira. Frantzian, Okzitanieraren Erakunde Publikoaren arabera, 2019an Akitania Berria eta “Occitanie” eskualdeetako biztanleen % 7 inguru okzitanieraz mintzatzen ziren, hau da, 540 000 hiztun baino gehiago bi eskualde horietarako.

Nahiz eta estatu-politika ez onuragarria izan, nahiz kontrako legedia izan, denak gutxi gorabehera arriskuan dira, baina ez hein berdinean. Batzuek nekez bizirik diraute. Beste batzuek, aldiz, aldeko testuinguruak aprobetxatuz, biziberritze-prozesu bati ekin diote. Haien iraunkortasunari dagokionez optimistagoak gara.

tania Berriak eta Occitanie-k sortu duten *Office public de la langue occitane* erakundearekin, hizkuntza-politika publikoak eramaten dituzte. Baina biziberritze prozesuak erronka anitzi aurre behar die: eremu zabala, gizartearen kontzientzia ahula, batzuetan hizkuntza-elkarte eta mugimendu kulturalen ezadostasuna, grafiari buruzko eztabaidak (nahiz *grafia klasikoa* nagusitzen den, Hezkuntza Nazionalean ere), etab. Halere esperientzia arrakastatsuak eta alor batzuetan aitzinamendu argiak hor dira. Azken lauzpabost hamarkada hauetan mugimendu kultural okzitanistak bereziki murgiltze-ereduzko eskolak (*calandretas*), okzitanierazko irratia, blog anitz Interneten, *Octele* web telebista... sortu ditu. Erdi Arotik (orduan lehenetan zen European trobadoreekin), okzitanierazko literatura bizi da eta XXI. mendean ere. Hona azken urte hauetan gutienik argitaratu diren liburu-kopuruak: 2017an: 186, 2018an: 158, 2019an: 151, 2020an: 133¹⁹. Halere okzitaniera osozko egunkaririk ez da, astekaririk ez ere (*La Setmana* desagertu da). Wikipedian okzitanieraz 84.231 artikulua ziren 2018/02/15ean.

6. AZKEN HITZA

I Artikulu honetan ikusi dugu nola Frantzia metropolitarrak hizkuntzaz aberatsa den. Nahiz eta estatu-politika ez onuragarria izan, nahiz kontrako legedia izan, hizkuntza horiek bizitzen jarraikitzen dira. Denak gutxi gorabehera arriskuan dira, baina ez hein berdinean. Batzuek nekez bizirik diraute. Beste batzuek, aldiz, aldeko testuinguruak aprobetxatuz, biziberritze-prozesu bati ekin diote. Haien iraunkortasunari dagokionez optimistagoak gara. ●

ERREFERENTZIA NAGUSIAK

CERQUIGLINI, Bernard (1999). *Les langues de France*, www.vie-publique.fr/rapport/24941-les-langues-de-france-rapport-au-ministre-de-leducation-nationale-de [Azken kontsulta: 2021-08-15].

COLLECTIVITÉ TERRITORIALE DE CORSE (2013). *Inchiesta sociolinguistica nant' à a lingua corsa: cumpetenze, usi è ripresentazione*, *Inchiesta sociolinguistica lingua corsa_2013_CTC.pdf* [Azken kontsulta: 2021-08-15].

EUROPAKO KONTSEILUA (1992). *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna*. www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_liburuak&Itemid=1400&task=hizkuntzaZuzenbidea&lang=eu&kodea=0602 [Azken kontsulta: 2021-08-15].

- EUSKO JAURLARITZA (2019). VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUZET, Christophe, KERLOGOT, Yannick (2021). *L'enseignement des langues régionales*, Txostena lehen ministroari: www.gouvernement.fr/sites/default/files/document/document/2021/07/rapport_enseignement_des_langues_regionales.pdf [Azken kontsulta: 2021-08-15].
- HARRISON, Michelle eta JOUBERT, Aurélie (ed.) (2019). *French language policies and the revitalisation of French regional languages in 21th century*: Basingstoke (England), Palgrave Macmillan.
- KOLEKTIBOA (2021). *Euskararen indar- eta ahulezi-printzak Iparraldean, Bat Soziolinguistika aldizkaria* 118.
- KREMnitz, Georg (zuz.) (2013). *Histoire sociale des langues de France*, Rennes, Presses Universitaires de Rennes.
- LECLERC Jacques (2020). *Les langues régionales de France*. Université de Laval (Canada). www.axl.cefano.ulaval.ca/europe/francepolminor-car-telng_regionale.htm [Azken kontsulta: 2021-08-15].
- L'ESPAI CATALÀ TRANSFRONTERER (2015). *Coneixements i usos lingüístics a la Catalunya del Nord*, www.eurodistricte.cat/ca/documentacio/coneixements-i-usos-linguistics-la-catalunya-del-nord-2015 [Azken kontsulta: 2021-08-15].
- MOSELEY, Christopher (ed.) (2010). *Atlas of the World's Languages in Danger*, 3rd edn. Paris, UNESCO Publishing.
- OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BRETONNE (2021). *Les chiffres clés de la langue bretonne*. www.fr.brezhoneg.bzh/5-chiffres-cles.htm [Azken kontsulta: 2021-08-15].
- REUTNER, Ursula (ed.) (2017). *Manuel des francophonies: Manuals of Romance Linguistics*, Berlin / Boston, De Gruyter.

OHARRAK

1. Hizkuntza horiek frantsesez beste izendapen batzuk izan ditzakete: *langues territoriales* (lurralde-hizkuntzak), *langues autochtones* (hizkuntza autoktonoak), *langues vernaculaires* (herri-hizkuntzak), *langues propres* (hizkuntza propioak), *langues traditionnelles* (hizkuntza tradizionalak), *langues endogènes* (hizkuntza endogenoak)... Guk, *langues régionales*, eskualdeetako hizkuntzak izendapena erabiliko dugu hedatuena baita (eskualdeko hizkuntzak edo eskualde-hizkuntzak izendapenak badaude ere) eta 1992ko Europako Gutunean definitua baita. Hau da ere Frantziako botere publikoek erabiltzen dutena.
2. Ozeanian, Kaledonia Berrian, adibidez, 28 hizkuntza kanak zerrendatu zituen Cerqui-glinik eta Polinesian 9 hizkuntza desberdin, Hego Amerikan Frantziar Guianan 6 amerindiar hizkuntza, frantses oinarri lexikalekiko 4 kreolera, etab.
3. Hitz hori nik sortua da, hizkuntza horrek izen arauturik ez du euskaraz.

4. Anitz sinplifikatuz, hiru irakaskuntza eredu nagusi dira Frantzia: eredu estentsiboa (oren batzuk astean), oren parekotasun irakaskuntza eredu (orenen erdia frantsesez, oreneen erdia eskualdeetako hizkuntzaz) eta murgiltze irakaskuntza eredu (hastapenean % 100 eskualdeetako hizkuntzaz eta frantsesaren sartzea urte batzuen ondotik, usu 5 urte buruan).
5. Loire-Atlantikoko departamendua haren hiri nagusiarekin, Nantes frantsesez / *Naoned bretoieraz*, ez da kontuan hartua. Bost departamenduek Britainia kulturala edo Britainia historikoa osatzen dute.
6. Pentsa daiteke *Bat aldizkariaren* zenbaki hau irakurtzen duenak, euskalduna izanik, euskararen egoera Ipar Euskal Herrian ezagutzen duela. Baina ez da batere segur. Aurten aztergai horri zenbaki berezi bat eman zaio, 118.a, *Euskararen indar- eta ahulezi-printzak Iparraldean* izenburuarekin.
7. www.jakin.eus/liburu-behatokia/2018ko-liburugintza [Azken kontsulta: 2021-08-15].
8. france3-regions.francetvinfo.fr/hautes-de-france/le-flamand-bientot-de-retour-a-l-ecole-l-academie-de-lille-cherche-de-futurs-professeurs-1926049.html [Azken kontsulta: 2021-08-15].
9. Hona gutunaren lehen artikulua: 1. Artikulua. Ekialdeko Pirinioetako Kontseilu Nagusiak ofizialki onartzen du katalana, frantsesarekin batera, departamentuko hizkuntza gisa. Gutun honen bidez, Kataluniako hizkuntza eta kultura perenizatze aktoreetako bat izateko konpromisoa hartzen du.
10. [fr.wikipedia.org/wiki/Franc-comtois_\(langue\)](http://fr.wikipedia.org/wiki/Franc-comtois_(langue)) [Azken kontsulta: 2021-08-15].
11. Hitz hori nik sortua da, hizkuntza horrek izen arauturik ez du euskaraz.
12. fr.wikipedia.org/wiki/Normand [Azken kontsulta: 2021-08-15].
13. Hitz hori nik sortua da, hizkuntza horrek izen arauturik ez du euskaraz.
14. Belgikako komunitate frantsesak pikardiera eskubide osoko eskualdeko hizkuntza endogenotzat onartu du ofizialki, frantzikera, lorrenera, valoniera eta xanpainerarekin batera (1990eko abenduaren 24ko dekretua).
15. fr.wikipedia.org/wiki/Poitevin-saintongeais [Azken kontsulta: 2021-08-15].
16. Bestalde, Okzitania herrialdea baino ttipiago den *Occitanie* frantziar eskualde administratibo berri bat sortu da 2014an, 13 departamendurekin. Horietan Ekialdeko Pirinioetako departamendua da Ipar Kataluniarekin.
17. fr.wikipedia.org/wiki/Occitan [Azken kontsulta: 2021-08-15].
18. 2018ko ekainaren 23an Ipar Euskal Herrian Euskal Hirigune Elkargoak euskara eta okzitaniera hizkuntza ofizialtzat onartu ditu. Onarpena sinbolikoa da.
19. Zenbaki horiek CIRDÒC-Mediatèca occitanak katalogatu dituen Okzitania osoko liburuak dira. Mediateka hori exhaustiboa izaten saiatzen da.